Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus

**Nekazaritza Saila**
**Departamento de Agricultura.**

Mendi Zerbitzua.
Servicio de Montes.

Honekin batera doakizu 276/2021 Foro Agindua uztailaren 8koa, zeinaren bidez debekatzen den salbuezpenez eta aldi baterako suaren erabilera Arabako Lurralde Historikoan eta nekazaritza eta basogintzako lanetarako gomendiak ematen diren".

Adjunto remito Orden Foral 276/2021 de 8 de julio, por la que se "prohíbe de manera excepcional y con carácter temporal del uso del fuego en el Territorio Histórico de Álava y recomendaciones durante la ejecución de trabajos agroforestales"

**Joseba Amurrio Urraca**
Nekazaritzako administrazio kudeaketarako ataleko burua
Jefe de la Sección de Gestión Administrativa de Agricultura

**Nekazaritza Saila**
**Departamento de Agricultura.**

Plaza de la Provincia 5-BAJO
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 18 18 18
Fax: 945 18 19 33

ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2021eko uztailaren 9a, ostirala • 76 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## NEKAZARITZA SAILA

**276/2021 Foru Agindua, uztailaren 8koa. Debekatzea salbuespenez eta aldi baterako suaren erabillera Arabako Lurralde Historikoan eta nekazaritza eta basogintzako lanak egiteko gomendioak ematea**

Uda garaiaren ezaugarriak ditugu giro tenperaturen igoera, eurien eta eguratseko hezetasun ehunekoen gutxitzea eta eguzki orduen kopuru handiagoa. Faktore horiek guztiek zuzeneko eragina dute landareen hezetasun galeran eta landa ingurunean sutea izateko arrisku indizeen gehikuntzan. Uda sasoi honetan gizakiaren jarduera areagotu egiten da landa ingurunean, eta horrek eta kontrako egoerek berekin ekar dezakete larrialdiak areagotzea, hala nola suteak baso eta nekazaritza lurretan.

Horiek horrela, arrisku handiagoa dagoen sasoi honetan, gomendatzen da prebentzio neurriak hartzea, sute bat sorraraz dezaketen jarduera guztiei dagokienez, hala nola zerealaren bilketa, nekazaritza hondakinen birrintzea, nekazaritza eta basogintzako lanak, garraio bideak onik zaintzeko lanak, astialdiko jarduerak eta abar.

Bestalde, Mendien Foru Arau horrek 65. artikuluan eta Mendien Legeak 44. artikuluan baimena ematen diote Arabako Foru Aldundian mendien alorrean eskumena duen sailari sute baten hasiera eragin dezaketen jarduerak arautzeko, bai eta, eguraldia edo beste zergati arrazoitu batzuk direla eta, aldi batean landa ingurunean suaren erabilera debekatzeko ere, nahiz eta horretarako egokitutako tokietan izan.

Informazioa bildu da Arabako Foru Aldundiaren mendeko atsedenlekuetan eta beste atsedenleku batzuetan barbakoak egiteko dauden instalazio finkoen egoerari buruz.

Aztertu dira aginduzko txostenak, Nekazaritza Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Arabako Foru Aldundiko Sailak 2019-2023 Legegintzaldirako Zehazten dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Eremua. Salbuespenez debekatzen da landa ingurune guztian sua erabiltzea, edozein helbururekin dela ere. Landa ingurune izango dira Arabako Lurralde Historikoko leku hauek:

— Zernahi eratako landa lurzorua.

— Mendi publiko zein pribatuak.

— Naturagune babestuak.

— Parke probintzialak eta aisialdi guneak.

— Probintzia edo toki titulartasuneko errepideetako atsedenguneak.

Sua erabiltzeko debeku honek aipatu diren lursailen hedadura guztia hartuko du barnean, bai nekazaritzako, basoko, lorategiko hondakinak deuseztatzeko, bai landaredia kontrolatzeko.

Bigarrena. Erretokiak erabiltzeko debekua. Era berean, debekatu egiten da erretokiak, barbakoak eta sua egiteko helburua duen edozein instalazio erabiltzea, salbu eta foru agindu honen I. eranskinean ageri den toki parkeen zerrendan ageri direnak. Hala ere, instalazioren batek foru agindu honen zortzigarren apartatuan ezarritako betekizunak betetzeari uzten badio uneren batean, itxi egin beharko du hura kontserbatzearen eta mantentzearen ardura duen foru administrazio organoak edo toki erakundeak. Salbuespenez, beste instalazio batzuk era justifikatuan erabiltzeko baimena eman ahal izango da. Horretarako, baimena eskatu behar zaio aurrez Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuari, eta kasuz kasu aztertuko dira.

Hirugarrena. Aldia. Sua erabiltzeko debekua indarrean egongo da ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik 2021eko irailaren 19ra arte. Hala ere, baldin eguraldia dela eta komeni bada, aldi hori aldatu ahal izango da.

Laugarrena. Arau hausteak. Foru agindu honetan ezarritako debekuaren urraketak Mendien Foru Arauaren 69. artikuluan xedatutakoaren arabera zigortuko dira, 1.000 euro arteko isunarekin eta sortutako kalte eta galerak ordaindu beharrarekin.

Bosgarrena. Debekuaren helmena. Sua erabiltzeko debekua ez dago zertan bete suaren prebentzio edo itzaltze lanetan.

Seigarrena. Neurriak eta zaintza. Lurralde Orekaren Sailari eta Ingurumen eta Hirigintza Sailari eskatzea har ditzatela behar diren neurriak beren ardurapeko atsedenlekuetan foru agindu hau betetzeko. Arabako Foru Aldundiko sailek behar diren baliabideak jarriko dituzte barbakoak edo sua egiteko beste edozein instalazio ixteko edo zigilatzeko. Foru aldundiaren menpean ez dauden barbakoak haiek kontserbatu eta mantentzeko ardura duen erakunde edo norbanako jabeak edo titularrak zigilatuko ditu.

Zazpigarrena. Parkeen zerrenda. I. eranskinean adierazten da sua erabiltzeko behin-behineko baimena duten parkeen zerrenda. Baimendutako parkeetako instalazio iraunkorrak dira, espresuki itxita ez daudenak.

Zortzigarrena. Barbakoa edo erretokien betekizun fisiko orokorrak. Mendi Zerbitzuak erretoki edo barbakoa bat baimentzeko, betekizun fisiko hauek bete behar ditu:

a) Egoera onean dagoen obra egitura finkoa izatea.

b) Guztiz estalita egotea eta txinpartak itzaltzeko sistema daukan tximinia izatea.

c) Obra hormak dituen eraikin baten barruan egotea, oinplanoaren perimetroaren ehuneko 75ean gutxienez. Hormak itxita egon behar dira lurretik teilatura, eta eragotzi egin behar dute sua, ilaunak edo partikula goriak ateratzea.

d) Egituraren zorua zolatu artifizialezkoa izan behar da.

e) Su har dezakeen erregairik ez daukan perimetro zerrenda bat izatea, distantzia horizontaleko edo murriztuko 3 metro zabalekoa, behintzat.

f) Barbakoaren ondoan (eraikinak badira, barruan), sukoia ez den ontzi bat izatea, errautsak bota ahal izateko; edo sukoia ez den leku bat izatea, errautsak han biltzeko.

g) Tximiniatik zuhaitz hurbilenaren adaburura dagoen distantzia gutxienez 5 metrokoa izan behar da.

Baldin eta barbakoaren inguruan ez badago suterako arrisku handirik, ez da nahitaez c) puntua bete behar. Hala eginez gero, barbakoaren egitura itxia izan beharko da bere hiru laurdenetan gutxienez.

Bederatzigarrena. Nahitaezko segurtasun neurriak, erretoki edo barbakoak erabiltzean. Hauek dira:

a) Segurtatu behar da 3 metro edo hori baino gehiagoko distantzia dagoela eraikinetik sutea zabaltzeko arriskua daukan edozein erregaitara.

b) Heze eduki eraikinetik hurbil dagoen landaredia, hura erabiltzen ari den denbora guztian, sutze arriskua murrizteko.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

c) Adi eta suaren ondoan egon, hark piztuta dirauen denbora guztian, eta berehala itzali, edozein arrisku egoera gertatzen bada.

d) Ez erre hosto, paper, erregai fin eta abarrik, baldin eta haien ilaunak keak eraman baditzake. Ikatza baino ezingo da erabili.

e) Errautsak hotz daudenean batu beti, eta sukoiak ez diren ontzietan utzi. Sukoiak ez diren ontzietara errautsak baino ezin dira bota eta erabiltzeko moduan egon beharko dira uneoro.

f) Ez pilatu erregai gehiegirik, apurka-apurka bota.

g) Eskura izan nahikoa ur edo sua itzaltzeko baliabide eraginkorren bat, barbakoa piztuta dagoen denbora guztian.

h) Segurtatu sua eta txingarrak guztiz itzalita daudela han ez gaudenean.

Hamargarrena. Salbuespenezko edo presazko prebentzio neurriak. Salbuespenez, eta arrazoituriko kausaren batengatik, Nekazaritza Sailak edozein sasoi eta lekutan, baita atsedenguneetan eta kanpalekuetan horretarako gaiturik dauden lekuetan ere, sua erabiltzea debekatu ahal izango du, aldi baterako zein modu iraunkorrean, une eta leku bakoitzean baso suteak izateko dagoen edo aurreikusten den arriskuaren arabera. Horrelakoetan, kasuan kasuko instalazioak behar bezala zigilatuko dira eta/edo seinaleak jarriko dira.

Hamaikagarrena. Nekazaritza eta baso lanetarako prebentzio neurriei buruzko gomendioak. Gomendatzen da sute arriskua dakarten jarduerak egiten diren bitartean, hala nola makinak erabiltzen diren nekazaritza eta basogintzako lanak, zereal bilketa, mendietan sasiak kentzeko lanak, nekazaritza eta basoko hondakinak birrintzea eta abar, baita errepide sarea mantentzeko lanak eta makinak erabiltzen diren bestelako lanak ere, kautelazko neurri ahalik eta zorrotzenak hartzea, lan horiek ezeztatzeraino ere iritsiz, giro egoera desegokiak baldin badaude, hala nola tenperatura altua, haize bortitza eta giro hezetasun baxua. Neurri hauek hartu behar dira:

— Makina bakoitzak honako hauek izan behar ditu: hautsezko edo aparrezko itzalgailua, gutxienez 6 kg-koa; bizkarreko itzalgailua, gutxienez 15 litro urez betea; eta sua jotzekoa.

— Telefono mugikorra izatea, eta estaldura txarreko tokiak kontuan hartzea. Edozein gertakari edo sute gertatuz gero, berehala deitu beharko da 112ra.

— Makinen edo haietako errodamenduen gainberotzea saihestea, bai eta elektrizitate estatikoaren metatzea ere, zoruan deskargagailuak jarrita.

— Kontu handiz egitea makinen mantentze lanak, azterketak eta aldian behingo garbiketa, bereziki errodamenduetan, uhaletan eta poleetan, gas-kolektorean eta egunero lastoa pilatzen den makinaren beste toki batzuetan. Ihes hodiko gasen aterabidea ere aztertu beharko da, txinpartak itzaltzeko sistemak behar bezala funtziona dezan.

Zereala biltzeko lanetan, aurrekoez gain, beste neurri hauek ere hartzea gomendatzen da:

— Uzta bilketa hastean, pasada bat egin landutako lurzatiaren inguruan.

— Pasadak haizearen norabidearekiko perpendikularrean egin, haizebetik hasita (haizea norantz doan, han).

— Lurzoru harritsu eta maldatsuetan, murriztu aitzinamendu abiadura.

Hamabigarrena. Foru agindu hau argitaratzea ALHAOn, eta honako hauei jakinaraztea: Arabako toki erakundeei, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoari, Gasteizko suhiltzaileei, miñoiei, basozainei, UAGAri, nekazari eta abeltzainen elkarteei, baso elkarteei, Arabako ehiza barrutien elkarteei, parke naturaletan zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresei, Arabako Mendi Federazioari eta Gobernuaren Arabako Ordezkariordetzari. Halaber, eskatzen zaie foru agindu honetan gomendatu eta debekatutakoak herritarrei jakinaraz diezazkietela, eta berariaz eskatzen zaie agintaritzaren agenteei eta toki erakundeen agintariei foru agindu honetan xedatutakoak betearaz ditzatela.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

AZKEN XEDAPENA

Foru Agindu hau ALHAOn argitaratzenden biharamunean sartuko da inaderrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 8a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*
*EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO*

*Nekazaritza zuzendaria*
*Mª ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE*

**I. ERANSKINA**

Fabrika lanez eraikitako eta hormez eta tximiniaz hornitutako instalazioak –ez badaude espresuki itxita– erabiltzeko behin-behineko baimena ematen den parkeen behin-behineko zerrenda:

| PARKEAREN IZENA | KOKAPENA | ERAKUNDE LAGUNTZAILEA |
|---|---|---|
| — San Roke | Amurrio | Amurrioko Udala |
| — Encina | Artziniega | Artziniegako Udala |
| — Santa Ana | Laudio | Laudioko Udala |
| — San Gines* | Bastida | Bastidako Udala |
| — Fresnedo | Santikurutze Kanpezu | Kanpezuko Administrazio Batzarra |
| — Ostuño | Izarra | Izarrako Administrazio Batzarra |

* Instalazioetako bi baino ezin dira erabili: barbakoa anizkun handia eta eraikinaren barruan dagoen barbakoa. Debekatzen da gainerako barbakoak erabiltzea.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

BOTHA
BOLETÍN OFICIAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

viernes, 9 de julio de 2021 • Núm. 76

## I - JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA Y ADMINISTRACIÓN FORAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

Diputación Foral de Álava

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

**Orden Foral 276/2021 de 8 de julio. Prohibir de manera excepcional y con carácter temporal del uso del fuego en el Territorio Histórico de Álava y recomendaciones durante la ejecución de trabajos agroforestales**

El periodo estival, meteorológicamente, se caracteriza por un aumento de las temperaturas ambientales, por la disminución de las precipitaciones y de los porcentajes de humedad del aire, así como por la mayor duración de las horas solares, factores todos que inciden de forma directa en la pérdida de humedad de la vegetación y en el aumento de los índices de riesgo de incendio en el medio rural. Durante los meses de verano, la mayor actividad humana en este medio rural puede dar lugar a la proliferación de incidentes que, en condiciones desfavorables, desencadenen situaciones de emergencia como, concretamente, la de los incendios tanto forestales como agrícolas.

Es por ello por lo que en esta época de mayor riesgo se aconseja la adopción de medidas de prevención relativas a todas aquellas actividades que potencialmente puedan dar lugar a un incendio, como son la cosecha del cereal y la trituración de los residuos agrícolas, los trabajos agroforestales, los trabajos de mantenimiento en vías de transporte, las actividades de ocio, etc.

Por otra parte, el artículo 65 de la citada Norma Foral de Montes y el artículo 44 de la Ley de Montes, facultan al Departamento competente en materia de montes de la Diputación Foral para regular aquellas actividades que puedan originar el inicio de un incendio, así como, por razones climáticas u otras causas justificadas, prohibir temporalmente el uso del fuego en el medio rural, incluso en los lugares habilitados para ello.

Se ha recabado información sobre el estado de las instalaciones fijas para la realización de barbacoas, situadas tanto en áreas recreativas dependientes de la Diputación Foral de Álava como en otras áreas recreativas.

Vistos los informes preceptivos, en virtud de las competencias atribuidas por el Decreto Foral 14/2016, del Consejo de Diputados de 9 de febrero, que aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura, por aplicación de los Dispongo noveno del Decreto Foral 324/2019, del Diputado General, de 5 julio, por el que se determinan los Departamentos de la Diputación Foral de Álava para la legislatura 2019-2023,

DISPONGO

Primero. Ámbito. Prohibir de manera excepcional el uso del fuego, con cualquier fin, en todo el medio rural, que incluye los siguientes lugares del Territorio Histórico de Álava:

— Suelo rústico de cualquier clase.

— Montes públicos o de particulares.

— Espacios naturales protegidos.

— Parques provinciales y locales de esparcimiento.

— Áreas de descanso de las carreteras de titularidad provincial o local.

Esta prohibición de uso del fuego comprenderá la totalidad de la extensión superficial de estos terrenos, tanto para la eliminación de residuos agrícolas, forestales, de jardín, como para el control de la vegetación.

Segundo. Prohibición del uso de asadores. Igualmente se prohíbe el uso de asadores, barbacoas o cualquier instalación destinada a la realización de fuego, salvo aquellas contenidas en la relación de parques que figura como Anexo I a esta Orden Foral. No obstante, aquellas instalaciones que en algún momento dejen de cumplir los requisitos del apartado octavo de la presente Orden Foral, deberán ser clausuradas por el órgano administrativo foral o entidad local a las que corresponda su conservación y mantenimiento. Excepcionalmente se podrá autorizar la utilización justificada de otras instalaciones, que se estudiará caso por caso, previa solicitud al Servicio de Montes del Departamento de Agricultura.

Tercero. Período temporal. La prohibición de uso del fuego estará vigente desde el día siguiente al de su publicación en el BOTHA hasta el día 19 de septiembre de 2021. No obstante, si las condiciones meteorológicas así lo aconsejan, este período podrá modificarse.

Cuarto. Infracciones. Las infracciones de la prohibición contenida en esta Orden Foral serán sancionadas de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 69 de la citada Norma Foral de Montes, con multa de hasta 1.000 euros y el pago de los posibles daños y perjuicios que pudieran causar.

Quinto. Alcance. Esta prohibición del uso del fuego no será de aplicación en las labores que se realicen para la prevención o extinción de los incendios.

Sexto. Medidas y vigilancia. Solicitar al Departamento de Equilibrio Territorial y al Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo, la adopción de las medidas necesarias para el cumplimiento de esta Orden Foral en las áreas recreativas de su competencia. Para el cierre o precintado de las barbacoas o de cualesquiera otras instalaciones destinadas a la realización de fuego, los Departamentos de la Diputación Foral de Álava habilitarán los medios necesarios. Las barbacoas no dependientes de esta Diputación Foral serán precintadas por la entidad o persona propietaria o titular a quien corresponda su conservación y mantenimiento.

Séptimo. Relación de parques. Se determina la relación de parques con autorización provisional de uso del fuego en Anexo I. Se trata de aquellas instalaciones permanentes de los parques autorizados, que no se encuentren expresamente clausuradas.

Octavo. Requisitos físicos generales de las barbacoas o asadores. Para que un asador o barbacoa sea autorizado por el Servicio de Montes, deberá cumplir los siguientes requisitos físicos:

a) Ser una estructura de obra fija en buen estado de conservación.

b) Estar cubierta en su totalidad y dotada de chimenea con sistema matachispas.

c) Ubicarse en el interior de una edificación con paredes de obra al menos en el 75 por ciento del perímetro de la planta, cerradas desde el suelo hasta el techo, que impidan la salida del fuego, pavesas o partículas incandescentes.

d) El suelo del conjunto de la estructura deberá ser de pavimento artificial.

e) Disponer de una franja perimetral libre de combustible susceptible de arder, con una anchura de al menos 3 metros de distancia horizontal o reducida.

f) Disponer junto a la barbacoa (en el caso de edificaciones, en el interior de éstas) de un recipiente no inflamable en el que se puedan tirar las cenizas o de un lugar no inflamable en el que queden recogidas.

g) La distancia desde la chimenea a la copa del árbol más cercano deberá ser de al menos 5 metros.

En los casos en los que el entorno de la barbacoa no presente un riesgo de incendio elevado, podrá eximirse el cumplimiento del punto c). En este caso la estructura de la barbacoa deberá ser cerrada, al menos en sus tres cuartas partes.


D.L.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Noveno. Medidas obligatorias de seguridad en el uso de asadores o barbacoas. Son las siguientes:

a) Asegurarse de tener una distancia horizontal mayor o igual a 3 metros desde la edificación a cualquier combustible susceptible de propagar el fuego.

b) Mantener húmeda la vegetación herbácea próxima a la edificación, durante todo el uso de la misma, a fin de disminuir el riesgo de ignición.

c) Permanecer vigilante y junto al fuego durante todo el tiempo que esté encendido, procediendo a apagarlo rápidamente si surgiera cualquier situación de riesgo.

d) No quemar hojas, papel, combustible fino, etc., cuyas pavesas puedan ser transportadas por la columna de humo. Únicamente se permitirá la utilización de carbón.

e) Recoger siempre las cenizas en frío y depositarlas en recipientes no inflamables. Dichos recipientes no inflamables serán empleados para depositar exclusivamente cenizas y deberán encontrarse en todo momento en disposición de ser usados.

f) No acumular gran cantidad de combustible, añadiéndolo siempre de forma progresiva.

g) Tener agua suficiente o algún medio de extinción eficaz junto a la barbacoa durante todo el tiempo que esté encendida.

h) Asegurarse de que el fuego y las brasas estén totalmente apagados al ausentarse.

Décimo. Medidas preventivas extraordinarias o de urgencia. Extraordinariamente, y por causa justificada, en cualquier época y lugar, el Departamento de Agricultura podrá prohibir el empleo del fuego, incluso en los lugares habilitados para ello de zonas recreativas y de acampada, ya sea de forma temporal o permanente, en función del riesgo de incendios forestales existente o previsto en cada momento y lugar. En tales casos, las instalaciones correspondientes quedarán debidamente precintadas y/o señalizadas.

Décimo primero. Recomendaciones sobre medidas preventivas para trabajos agroforestales. Recomendar que durante la ejecución de aquellas actividades que impliquen un riesgo potencial de incendio, como son los distintos trabajos agroforestales con utilización de maquinaria, cosecha de cereal, trabajos de desbroce en montes, triturado de restos agrícolas y forestales, etc., así como trabajos de mantenimiento de la red de carreteras y otras obras que supongan la utilización de maquinaria, se extremen las medidas de precaución, incluso llegando a suprimirlos cuando se den condiciones ambientales adversas, con altas temperaturas, fuerte viento y baja humedad ambiental. Las medidas a adoptar son las siguientes:

— Disponer cada máquina de un extintor de polvo o espuma de al menos 6 kg, de una mochila extintora con contenido mínimo de 15 l de agua y de un batefuegos.

— Disponer de teléfono móvil, teniendo en cuenta los lugares de mala cobertura, y en caso de cualquier incidencia o incendio se avisará inmediatamente al 112.

— Evitar el sobrecalentamiento de las máquinas o de sus rodamientos, así como la acumulación de electricidad estática con descargadores en el suelo.

— Extremar el cuidado en el mantenimiento, revisiones y limpieza periódica de las máquinas, en especial de rodamientos, correas y poleas, colector de escape y otros puntos de la máquina donde se acumule la paja diariamente. Asimismo, se revisará la salida de gases del tubo de escape para un correcto funcionamiento del matachispas.

En los trabajos de recogida de cereal, además de las anteriores, se recomienda adoptar las siguientes medidas:

— Iniciar la cosecha realizando una pasada alrededor de la parcela de cultivo.

— Realizar las pasadas de forma perpendicular a la dirección del viento, empezando por sotavento (zona hacia la que va el viento).

— En terrenos pedregosos y con pendiente, disminuir la velocidad de avance.



D.L.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Décimo segundo. Publicar la presente Orden Foral en el BOTHA y notificarla a todas las Entidades Locales Alavesas, Organismo Autónomo de Bomberos Forales de Álava, Bomberos de Vitoria-Gasteiz, Ertzaintza, Miñones, Guardería Forestal, UAGA, Asociaciones de Agricultores y Ganaderos, Asociaciones Forestalistas, Asociaciones de Cotos de Caza de Álava, Empresas que gestionen servicios en los Parques Naturales y Federación Alavesa de Montaña, así como, a la Subdelegación del Gobierno en Álava, solicitando que se dé la máxima difusión entre los ciudadanos de las recomendaciones y prohibiciones establecidas y encomendando especialmente a los agentes de la autoridad y a las autoridades de las Entidades Locales que velen por su cumplimiento.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, a 8 de julio de 2021

*Diputado Foral de Agricultura*
*EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO*

*Directora de Agricultura*
*Mª ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE*

## ANEXO I

Relación provisional de parques donde se autoriza provisionalmente el uso del fuego en aquellas instalaciones construidas en obra de fábrica, dotadas de paredes y chimenea, que no se encuentren expresamente clausuradas:

| NOMBRE DEL PARQUE | UBICACIÓN | ENTIDAD COLABORADORA |
|---|---|---|
| — San Roke | Amurrio | Ayuntamiento de Amurrio |
| — La Encina | Artziniega | Ayuntamiento de Artziniega |
| — Santa Ana | Llodio | Ayuntamiento de Llodio |
| — San Ginés* | Labastida | Ayuntamiento de Labastida |
| — Fresnedo | Sta. Cruz de Campezo | Junta Administrativa de Campezo |
| — Ostuño | Izarra | Junta Administrativa de Izarra |

* Únicamente se permite el uso de dos de las instalaciones: la barbacoa múltiple grande y la barbacoa sita en el interior de la edificación. Se prohíbe el uso del resto de barbacoas.